Informa el alcalde Sr. Irigaray de que la Sociedad de Ciencias Aranzadi está llevando a cabo los trabajos de campo necesarios para poder delimitar el yacimiento de Iturissa.

La Corporación se da por enterada.

13.- RUEGOS Y PREGUNTAS

No se formulan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, siendo las 21,20 h. del mismo día se levanta la sesión, de lo que doy fe.

Aurizko Udaletxeen, 2014ko urriaren 7an, 20:00etan, Udala bildu zen bilkura arrunta egiteko. Bertaratuak: M^a Roncesvalles Azanza Burusco, M^a Aranzazu Oyarbide Lapazarán, Alejandro Otegi Echeverría eta Luis De Potestad Tellechea, bilkuraburu alkatea, Jose Irigaray Gil izan zen eta idazkaria, udalbatzarena, Marisol Ezcurra Irure. Juan Manuel Azanza Burusco zinegotziak etortzerik ez duela jakinarazi du.

1.1.- 2014ko UZTAILAREN 22ko eta 30eko BILKURETAKO AKTEN ONESPENA

Udalbatzak erabaki du aho batez 2014ko uztailaren 22an eta 30ean egindako bilkuren aktak onartzea.

2.- 2014ko UZTAILAREN 16ik URRIAREN 2a ALKATEAK EMAN DITUEN EBAZPENEI BURUZKO INFORMAZIOA

Alkateak jakinarazi du 2014ko uztailaren 16tik urriaren 2ra eman dituen ebazpenak, horiek bilkurako expedientearen daude eta udalkide guztiak jakitun daude.

De Potestad jk. hitza hartu du eta 100 zkia, duen ebazpenari buruz galdetu du. Ebazpen horren bidez Ehiztari elkarteari baimena eman zaio Kultur Etxea erabiltzeko eta galdetu du zein den tasak kobraztzeko jarraitzen den irizpidea. Alkateak, Irigaray jk., erantzun dio ordenantzaren arabera alkatzek irizpideak ezarri ahal dituela eta, bere ustez,

herriko elkarteei baimenak eman ahal zaizkie ezer kobrau gabe. De Potestad jk. dio ez duela argi, berak Kultur Etxea erabiltzeko baimena eskatu zuenean tasa kobrau baizitzaina.

Mendiaundin silizea ateratzeari buruzko txostenak jasotzeko eskaerari buruzko ebazpenari dagokionez, 105 zkia duen ebazpena, De Potestad jk. dio berak ere txosten horien kopiak eskuratu nahi dituela, alde batetik Nasuvinsako txosten urbanistikoa eta bestetik Beaumont-Aristu abokatuen txosten juridiko negatiboa, Udalari iristen zaionean, eta udal talde gisa, eskatu nahi du txosten horiek Erroibarko Udalari eta Aurizberriko kontzejuari bidaltzea, txostenak manipulatu eta desitxuratu ez daitezen eta Udalera jauritzeko arma gisa erabil ez dadin.

Otegi zinegotziak hitza hartu du eta esan du txosten juridikoa oraindik ez bada iritsi eta beraz, ez badakigu zer dion, ez duela ulertzen zergatik De Potestad zinegotziak esan ahal duen negatiboa denik, eta hori sobera ausarta iruditzen zaiola. De Potestad jk. dio Beaumontekin lanean aritu dela eta badakiela zergatik esaten duen hori, eta negatiboa izango delako iritzia berresten duela. Modu berean galdeztzen du Udalari aholkua ematen dion letratua Hector Nagore baldin bada, zergatik gai honetarako Beaumont-Aristu abokatuen zerbitzua kontratatu den.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta De Potestad jk. egin duen eskaerari dagokionez esan du Nasuvinsak egin duen txostena igorriko zaiola eta txosten jurdikoa ailegatzen denean hori ere igorriko zaiola. Eta txosten horiek Erroibarko Udalari zein Aurizberriko Kontzejuari igortzeari dagokionez esan du ez duela eskaera hori onartuko, txostenak nahi badituzte eska ditzatela eta horrela eginez gero, noski, emango zaizkiela.

Eta azkenik, abokatuen gaiari dagokionez, alkatearen ahalmena da, legeak ematen dizkion eskumenak erabiliz, txotenak nahi duenari eskatzea. Bere ustez Hector Nagore letratua oso abokatu ona da hirigintzako gaietan, eta horregatik berarekin lantzen dira horrelako gaiak, baina bere ustez Beaumont-Aristu abokatuak ingurumeneko gaietan eskarmentu handia daukate.

De Potestad jk. hitza hartu du eta eskatu du aktan jartzea ez dela berak egin duen eskaera onartu, hots, txostenak Erroibarko Udalari eta Aurizberriko Kontzejuari igortzea, eta alkateak, Irigaray jk. erantzun dio interesaturik baldin badaude entitateak berak izan behar dutela eskatzen dutenak eta ez De Potestad j. Horrek dio bere ekimenez eskatu duela, uste baitu interesatzen ahal zaiela.

Azkenik bertan dauden zinegotziek diote beraiek ere txosten horien kopiak jaso nahi dituztela eta alkateak, Irigaray jk. dio igorriko zaizkiela.

3.- “INPOSAKETARIK EZ” TALDEAK UDAL ERAIKINETAN BANDERAK JARTZEARI BURUZ AURKEZTU DUEN MOZIOA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du Aezkoan “Inposketarik Ez” taldea sortu dela eta udaletxeetan espainiako bandera jartzearen inposaketaren aurkako ekimenak egiten ari dela eta mozioa aurkeztu dutela eta uste duela mozioaren puntu bakoitza eztabaideatu eta bozkatu behar dela.

Mozioa puntuz puntu bozkatzearekin ados daudenez, erabaki da:

MOZIOA

1.- Udalak bandera bat inposatu izana salatzen du, ez baita bizilagun gehienen sentimenduaren adierazgarri.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du puntu hori onartuko lukeela honakoa gehituko balitz: irailaren 25eko 17/2014 FORU LEGEA onartzeak inolako zentzurik ez duela; bere ustez ikurren Foru Legeak badituelako bere tresna propioak betea izateko eta, beraz, ez du uste beste lege bat onartu behar denik. Hortaz mozioaren lehenengo puntuaren ordez berak esan duena proposatu du.

Otegui jk. horrekin bat egiten duela dio.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du mozioaren lehenengo puntuaren aurka dagoela, ez baitaki auriztarrek zer pentsatuko duten. Dena den, ez dago De Potestad jk. egin duen proposamenarekin ados. Azanza zinegotziak dio berak ere ez duela argi gaiari buruz auriztarrek izango duten iritzia eta, hortaz, ez du bozkatuko.

Hortaz, mozioaren 1. puntu bozkatu da eta emaitzak hauek izan dira:

Aurkako 4 botu (Oyarbide, Irigaray, Otegui eta De Potestad) (azkeneko biak De Potestad jk. gehitzea proposatu duena gehituz gero onartuko luketeelako) eta abstentzio bat (Azanza). Beraz, ez da mozioaren lehenengo puntu onartu.

2.- Udalak “Guztio Nafarroa, guztio ikurrak” lege-ekimen herrikoiarekin bat egiten du eta herritarrak parte hartzera animatzen du.

Otegui jk. galdetu du ekimen horrek aurreko egoerara, hots, balkoian banderarik ez jartzeko egoerara itzultzeko aukerarik ematen duen.

Irigaray jk., alkateak, dio ekimen horrek Ikurren Legea aldatu nahi duela Udalak beste banderak jarri ahal izateko, ikurriña zehazki.

De Potestad jk. dio ez duela ezagutzen ekimenak proposatu duen artikuluaren edukia eta, hortaz, ez duela bozkatuko.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du puntu onartuko duela Udalak 2014ko otsailaren 11n onetsi zuen erabakiarekin bat egiten baitu, hots, Nafarroako Ikurren Legea aldatzea, beste bandera batzuk jarri ahal izateko, identitate-sentsibilizazio diferenteak ordezkatuak egon daitezen, eta horregatik dagoela udaletxeko balkoian bosgarren makila jarria eta horregatik eskatu zitzaiola Nafarroako Legebiltzarrari Lege aldatzea.

Hortaz, mozioaren 2. puntu bozkatu da eta emaitzak hauek izan dira:

Aldeko hiru boto (Azanza, Irigaray eta Otegui) eta bi abstentzio (Oyarbide eta De Potestad). Beraz, mozioaren bigarren puntu onartu da.

3.- Udalak gure herriaren, Euskal Herriaren, nazio eraikuntzan eta subiranotasunaren lorpenean lagundi, lan egin eta aurrera egiteko konpromisoa hartu du.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du ez duela puntu hori onartuko, aldez aurretik auriztarren artean gaia eztabaidatu eta partekatu beharko litzatekeelako.

Aho batez mozioaren hirugarren puntu ez onartzea erabaki da.

4.- Udalak gure herriaren erabakitzeko eskubidea lortzeko lagundi, lan egin eta aurrera egiteko konpromezua hartu du.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du erabakitzeko eskubidea funtsezkoa dela demokrazian, eta hura aberastu eta sendotzen duela eta, hortaz, puntu honekin bat egiten duela.

Aho batez mozioaren laugarren puntuoa onartzea erabaki da.

4.- AURITZ ETA ERROIBARKO DERMIOEN ARTEKO KATASTROAREN EGOKITZAPENAREN GAINeko ERABAKIA (Menditxuri)

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du apirileko bilkuraren jakinarazi zuela udalerriko mugen zeuden zalantzak argitzeko txostena eskatu ziola Herrilurretako Atalari.

Bere asmoa dela gai hauek poliki-poliki aztertzea eta, hortaz, Menditxurirekin dagoen desadostasunetik hastea proposatzen du. Desadostasun hori antzinako eta oraingo katastroak alderatuz antzematen da, Aurizko Udalak eta Aurizberriko Kontzejuak 1886an sinatu zutenaren arabera Auritzek uzten zien azienda pasatzen eta bazkatzen Aurizberrikoei Menditxuriko eremuan, eta, horren truke, Aurizberriko kontzejuak Bentatik Otegin barna Arrobiko baserriraino (Martindorrebara) joaten zen bidetik azienda pasatzen uzten zien, eta bide hori joan den mendeko hirurogeiko hamarkada arte erabili zen, orduan alderdi hori labakitu zelako. Erabaki horrek erabilerei eragiten zien, ez berriz lurren jabetzari.

Jose Ignacio Dufur alkate izan zen garaian mugarri bat egitea eskatu zuen baina oraindik jarri gabe dago, eta horretan B eta E hizkiak agertzen dira, eta mugak berrikustera joaten direnean beti aipatu izan da mugarri hori falta dela.

2003-2007 legegintzaldian zinegotzia zen Martin Pedroarenak esan zuen sitnan begiratuta dermio horretan ez zela argi ateratzen Aurizko dermioa eta herrilurretako zerbitzuan begiratuta gauza bera esan dute. Modu batera erabiltzeko baimena eman da beste erabilera baten truke, eta lurrok landatu zirenean erabilera hori deuseztatu zen, baino horrek ez dio jabetzari eragin.

Herrilurretako Atalak egin duen txostenean esaten da eremu hori Aurizko dermioan dagoela, 1886ko mugen hitzarmenean idatzita gelditu zen moduan, eta, hortaz, aldaketa egin behar dela katastroan, baina aldez aurretik Aurizberriko kontzejuarekin mintzatu behar da ados dauden jakiteko.

Udalaren dokumentazioaz gain Nazioko Geografia Institutuak dituen datuak daude eta horietan aipatzen diren mugak eta gaur egungo katastrokoak alderatuz, argi dago akatsa dagoela. Modu berean Tracasatik esan dute eskalak handiak direnez ezin dela zehatz mehatz neurtu, eta badirudiela 35.000 m² eta 40.000 m² artean egon daitezkeela, eta, hortaz, zentzuzkoena izan daitekeela mugarrria jartzeko bi herrien artean adostea eta azalera neurztea.

Dena den Aurizberriko Kontzejuari batez ere esan behar zaio erabilera dagoen moduan utziko dela, Aurizko Udalak egin nahi duen bakarra dela egoera argitzea errazago baita burdin-sarea dagoen tokitik jartzea eta ez harkaitzaren erditik.

Horiek horrela, aho batez erabaki da:

1.- Herrilurretako Atalak aurkeztu duen txostena onartzea.

2.- Herrilurretako Atalak igorri duen txostena Aurizberriko Kontzejuari eta Erroibarko Udalari igortzea.

3.- Aurizberriko Kontzejuari bilera egitea eskatzea, egin dena azaldu eta katastroaren berrikuspena egitea proposatzeko, beti ere argi utziz Udalaren asmoa ez dela burdin-sarea lekuz aldatzea, baizik eta katastroan aldaketa egitea gauzak argi uzteko.

5.- BERROAUNDIAKO BAZKALEKUAK MANTENDU ETA HOBETZEKO HITZARMENA

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta jakinarazi du ekaineko bilkuran Imanol eta Aritz Dufur de Ynchausti anaiei Berroaundiako bazkalekuak adjudikatu zitzaietako eta horren ondoren hitzarmena onartu behar zela; Ingurumeneko Departamentuarekin harremanetan jarri zela eta egokia ikusi dela Departamentu hori, Aurizko Udala eta Dufur anaien artean batzorde bat osatzea. Batzorde horrek egin behar diren lan eta jarduerak erabakiko ditu, baita adjudikaziodunek ordaindu behar dutena eta bi urtez egin beharreko bilerak ere. Hona hemen hitzarmena:

BERROAUNDIAKO BAZKALEKUAK MANTENDU ETA HOBETZEKO HITZARMENA

SARRERA.

Aurizko Udala lanean ari da Berroaundiako bazkaleku bat berreskuratzeko. Berriki prestatu den bazkaleku hori egin den lurzatiengatik baterakuntzaren ondoren Udalarena izatera pasatu da. Eremua sasiz beterik zegoen eta erabat deuseztatua. 2010, 2011, 2012 eta 2013. urteetan zehar Udalak, Nafarroako Gobernuko Baso Kudeaketaren Atalarekin batera, hainbat jarduera jarri ditu martxan bazkaleku hori berreskuratzeko, besteak beste bazkatze intentsiboak eta sasi-garbiketak, eremua garbitu eta bazka gehiago sortzeko. Horren ondorioz 16,60 ha. berreskuratu dira. 2014ko ekainean Udalak bazkaleku horien aprobetxamendua Aritz eta Imanol Dufur de Ynchausti anaiei adjudikatu zien eta horren ondoren hitzarmena sinatu behar zen bazkalekuak mantendu eta hobetzeko baldintzak ezarri.

Eremu esperimentalak denez eta Landa Garapeneko Departamentuak hobekuntzak egiteko laguntza eman duenez, bai teknikoa zein ekonomikoa, Nafarroako Gobernuko Baso Kudeaketa Atalari gonbidapena egingo zaio hitzarmen hau onartu ondoren sortuko den batzordean parte hartzeko.

ARTIKULUAK

- 1)- Hitzarmen honetan sartzen diren bazkalekuek 16,60 ha. hartzen dute.
- 2)- Hitzarmenak zortzi urte iraungo du.
- 3)- Hitzarmena sinatzen den unean bazkalekuak emankortasuna %50koa dela konsideratzen da, hau da, haien balio ekonomikoa herrilurretan bezala baten erdia da.
- 4)- Bi urtero, hitzarmenean parte hartzen duten aldeek bazkalekuak eboluzioa baloratuko dute eta aurreko puntu berrikusiko da.
- 5)- Esperimentu bat denez eta urtero bazkalekuek izango duten eboluzioa zalantzan dagoenez, egingo diren lanak eta nola egingo diren zehaztuz joango gara.
- 6)- Bazkalekuaren mantenimendua egokia izan dadin, Udalak azienda gehiago sartzea eskatu ahalko du, UGMen kopurua zehaztu gabe.

7)- Esperimentu bat denez eta urtero bazkalkuek izango duten eboluzioa zalantzan dagoenez, segimendu batzordea osatuko da adjudikaziodunen, Nafarroako Gobernuko Baso Kudeaketa Ataleko ordezkarien eta Udalaren ordezkarien artean; batzordea urtero bilduko da urte horretan egin beharreko lanak eta sartuko den azienda kopurua zehazteko. Batzordearen erabakiak lotesleak izango dira.

8)- Urtea bukatzen denean adjudikaziodunek egin dituzten lanak baloratuko dira eta horien balioa ordaindu beharreko kanonari kenduko zaio.

9)- Udalak lur horiek beste erabilera tarako erabiltzeko eskubidea gordetzen du, beti ere bazkalekuen aprobetxamenduaren kalterako ez bada.

Horiek horrela, aho batez erabaki da Berroaundiako bazkalekuak mantendu eta hobetzeko hitzarmena hasiera batean onartzea.

6.- AURREKONTUKO ALDAKETEN ONESPENA

Alkateak, Irigaray jk., aurrekontuen sei aldaketa onartu behar direla jakinarazi du; lehenengoa aurtengo aurrekontuetan ez zelako eskola garraiorako dirurik aurreikusi, bigarrena informatika ekipoen ezustekoa gertatu baita eta horretarako dagoen diru kopurua handitu behar baita. Hirugarrena teilatua konpontzeko zegoen diru-partida bertan behera utzi behar baita, dirulaguntzarik ez dagoenez ez baita konpondu behar. Laugarren aldaketari dagokionez, aurrekontuetan diru nahikorik ez dagoenez ukitutako gastuen soberakinaren bidez eta aurten emandako dirulaguntzaren bidez finantzatuko da. Bosgarrenari dagokionez, diru nahikorik ez dagoenez, diruzaintzaren soberakinaren bidez finantzatuko da, eta egin behar ziren lanak aurreikusita zeudenak baino gehiago izan direnez eta dirurik ez zegoenez horiei aurre egiteko, Nafarroako toki Ogasunen 2/1995 Foru Legearen 212 eta ondoko artikuluetan ezarritakoa betez, honako aldaketak onartu dira:

1. AURREKONTUKO ALDAKETA

2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|-------------|------------------------------|------------|
| 1 425 48001 | ESKOLA GARRAIOARENTZAKO LAG. | 2.000,00 |

| | |
|-------------------|----------|
| ALDAKETAK OSOTARA | 2.000,00 |
|-------------------|----------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|------------|---|------------|
| 1 870 | Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina | 2.000,00 |

| | |
|--------------------------------------|-----------------|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 2.000,00 |
|--------------------------------------|-----------------|

| | |
|--|-----------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 2.000,00 |
|--|-----------------|

2. AURREKONTUKO ALDAKETA

2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------------|-------------------------------------|---------------|
| 1 121 62601 | BULEGO MATERIAL INBENTARIAG. | 500,00 |

| | |
|--------------------------|---------------|
| ALDAKETAK OSOTARA | 500,00 |
|--------------------------|---------------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------|--|---------------|
| 1 870 | Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina | 500,00 |

| | |
|--------------------------------------|---------------|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 500,00 |
|--------------------------------------|---------------|

| | |
|--|---------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 500,00 |
|--|---------------|

3. AURREKONTUKO ALDAKETA

2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------------|--|------------------|
| 1 431 68201 | UDALETXEKO TEILATUA ZAHARBERRITZEKO PROIEKTUA | 43.000,00 |

| | |
|--------------------------|------------------|
| ALDAKETAK OSOTARA | 43.000,00 |
|--------------------------|------------------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------|--|-----------------|
| 1 870 | Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina | 7.000,00 |

| | | | |
|----------------|--|-----------------|------------------|
| 1 75501 | UDALETXEKO ZAHARBERRITZEKO DIRULAGUNTZA | TEILATUA | 36.000,00 |
|----------------|--|-----------------|------------------|

| | |
|---|------------------|
| <i>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</i> | 43.000,00 |
|---|------------------|

| | |
|---|-----------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 7.000,00 |
|---|-----------------|

4. AURREKONTUKO ALDAKETA

**2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK
GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------------|--------------------------|------------------|
| 1 432 60102 | KARRIKEN ZOLAKETA | 49.612,60 |

| | |
|---------------------------------|------------------|
| <i>ALDAKETAK OSOTARA</i> | 49.612,60 |
|---------------------------------|------------------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|----------------|---|------------------|
| 1 871 | DIRU-SARREREI LOTUTAKO GASTUETARAKO DIRUZ. GELDIK. | 22.631,10 |
| 1 75502 | KARRIKAK ZOLATZEKO DIRULAG. | 26.981,50 |

| | |
|---|------------------|
| <i>FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA</i> | 49.612,60 |
|---|------------------|

| | |
|---|------------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 22.631,10 |
|---|------------------|

5. AURREKONTUKO ALDAKETA

**2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK
GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.**

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|--------------------|-------------------------------|------------------|
| 1 432 60001 | BIDEAK ZOLATZEKO LANAK | 37.614,92 |

| | |
|---------------------------------|------------------|
| <i>ALDAKETAK OSOTARA</i> | 37.614,92 |
|---------------------------------|------------------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|------------|---|------------|
| 1 870 | Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina | 37.614,92 |

| | |
|--------------------------------------|------------------|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 37.614,92 |
|--------------------------------------|------------------|

| | |
|--|------------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 37.614,92 |
|--|------------------|

6. AURREKONTUKO ALDAKETA

2014ko AURREKONTU OROKOR BAKARRARI KREDITU BEREZIAK GAITZEKO ESPEDIENTEAREN HASIERAKO ONESPENA.

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|-------------|-------------------|------------|
| 1 453 68001 | SAROBERRIKO BIDEA | 3.113,85 |

| | |
|--------------------------|-----------------|
| ALDAKETAK OSOTARA | 3.113,85 |
|--------------------------|-----------------|

FINANTZIAZIO ITURRIAK

| KONTUSAILA | IZENA | ZENBATEKOA |
|------------|---|------------|
| 1 870 | Gastu Orokorretarako diruzaintzako soberakina | 3.113,85 |

| | |
|--------------------------------------|-----------------|
| FINANTZIAZIO ITURRIAK OSOTARA | 3.113,85 |
|--------------------------------------|-----------------|

| | |
|--|-----------------|
| <i>Diruzaintzako Geldikinaren kargura.</i> | 3.113,85 |
|--|-----------------|

Aho batez erabaki da aipatutako aurrekontu aldaketaK onartzea eta 6/1990 Foru Legearen 276 artikuluak dioenaren arabera jendaurrean jarriko da 15 lan eguneko epean udal idazkaritzan.

7.- AURIZBERRIKO KONTZEJUAK SEINALE BAT JARTZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Ondoren, alkateak, Irigaray jk., Aurizberriko kontzejuak igorri duen eskaera irakurri du; horretan baimena eskatzen da haur parkearen ondoan edo egokia ikusten den tokian seinale bat jartzeko eta horren irudia erantsi da. Alkateak, Irigaray jk., proposatu du seinalea Orreagako eta Larrañetako errepideen gurutzean jartzeko baimena ematea, GR-11ko informazio panelaren ondoan.

Aho batez erabaki da Aurizberriko Kontzejuari baimena ematea seinalea GR-11 panelaren ondoan jartzeko.

8.- MARISA ECHEVERRIAK LURZORU PUBLIKOAN TERRAZA JARTZEKO EGIN DUEN ESKAERA

Gaiaz mintzatu baino lehen Otegui j. bileratik atera da gaiarekiko interesa daukalako. Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du nahiz eta gaia aurreko bilkurau tratatu zen, okupatu behar diren metroak eta horien kokapena zehaztu gabe gelditu zela. Jakinarazi da 50 metro okupatuko direla, etxebizitzaren iparraldeko aldean. Aho batez erabaki da Marisa Echeverriari baimena ematea Ipetaeko bidearen ondoko lurzoru publikoko 50 metro okupatzeko, kafetegiaren terraza jartzeko, beti ere horretarako bakarrik izango da.

9.- TOKIKO FESTA EGUNA

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du 2014ko azaroaren 15a baino lehen igorri behar dela Laneko eta Arriskuen Prebentziorako Zuzendaritza Nagusira herrian besta eguna zein izango den eta 2015eko abenduaren 4a izatea proposatu du.

Udalbatzak erabaki du aho batez 2015eko herriko jai eguna abenduaren 4a izatea.

10.- BALORAZIO PONENTZIAREN GAINeko ERABAKIA

Idazkariak jakinarazi du ez dela gaia tratatu behar Udalak 2013ko otsailean onartu zuen balorazio ponentzia ez baizen idatzi, 2013ko ekainean onetsi ziren lege aldaketak kontuan hartuta, eta batzorde mistoa osatzeko egin behar dena dela orain arte egindakoa Lurraldearen Aberastasuneko zerbitzuari jakinaraztea.

Udalbatzak erabaki du aho batez gaia ez tratatzea.

11.- “AURITZ BIDEAN” ELKARTEAK DONE JAKUE BIDEKO ZATI BAT ALDATZEKO ESKAERA

Guillen Rubio Queiroga jk. “Auritz Bidean” elkartearen izenean eskaera egin du eta aipatzen du Done Jakue Bidea herritik pasatzen den azkeneko zatiak malda handia daukala eta irristaketa eta zailtasunak sortzen dizkiela ibiltariei zein txirrindulariei eta ESKATZEN DU, beherago leku erosoagoak eta seguruagoak daudenez eta zati horretan erromesei zerbitzuak eskaintzeko aukera dagoenez (ostatuak, tarbernak, jatetxeak, okindegia, hotelak), Udalak edo Udalaren bitartez eskumena duenak, bidearen azkeneko zati hori lekuz aldatzea, Santander Bankutik Loizu Hotelera.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du Landa Garapeneko Departamentuarekin harremanetan jarri dela eta esan diotela Done Jakue Bidearen aldaketa guztiak ez daudela Udalaren esku baizik eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko eta Kultura eta Turismo Departamentuen esku. Eta aldi berean bidea arautzen duen Dekretua aldatu behar dela. Hortaz, proposatu du eskaera Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura igortzea, zer egin ahal den esan dezaten. Otegui eta Oyarbide zinegotziek hitza hartu dute eta esan dute ez dutela bidea aldatzeko seguritatearen arrazoia nahikoa ikusten eta beste aldetik ez dutela uste aldaketak bidea hobetu ahal duenik, edo inorentzako onurgarria izan daitekeenik.

De Potestad jk. hitza hartu du eta esan du hala eta guztiz ere eskaera onartu ahal dela eta txostena eskatu, aldaketak egiteko proposamenak Udalek egin dituztelako, bai segurtasun aldetik edo establezimenduentzako onuragarria izan daitekeelako, horietako edozein arrazoi baliagarria izan daiteke, eta aldaketa proposatu ahal da, nahiz eta berak ere bere zalantzak dituen, ez baita proposatzen den bideko zati berria ikustera joan eta ez baitaki aldaketa hobea den edo ez orokorrean.

Idazkariak hitza hartu du eta esan du aldaketa egiteko eskaera Udalak bideratu behar duela eta Udalaren babesak baldin badu indar gehiago izango duela dudarik gabe. Bainan dena den eta gaia argi ez badago ere, Udalaren eskumena ez denez, egin behar duena da eskaera Nafarroako Gobernuari bideratu eta berak, eskumenak dituenez, erantzuna eman dezala.

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du interes orokorraren alde egin behar dela eta ezin direla aurrekariak sortu erabakiak izan ahal dituen ondorioak aztertu gabe, eta hortaz, eskaera Landa Garapeneko Departamentura igortzea proposatu du eta txostenaigor dezaten.

Gaia eztabaидatu ondoren, aho batez erabaki da eskaera Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentura igortzea, erantzuna eman dezan.

12.- BESTERIK

Lindus proiektuaren ikuskapena

Alkateak jakinarazi du uztailaren 24an proiektuaren ikuskapena egin zuela Pirinioetako Lan Taldeak eta emaitzak positiboak izan zirela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Iratzi, Urrobi eta Erro ibaien sistema BBE

Alkateak, Irigaray jk., esan du abuztuaren 13an argitaratu zela NAOn uztailaren 2ko 59/2014 Foru Dekretua; haren bidez Batasunaren Garrantzizko Lekua (BGL) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen da eta gure udalerriari dagokionez Jauregiaroztegi hezegunea sartu da, Nafarroako eremu atlantiko-pirenaikoko hezegunerik garrantzizkoenakoa baita.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Bideen zolaketa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Soroluzea, Antsobi eta Aetzubiko bideak zolatzeko lanak bukatu direla; horiek Arian enpresak egin ditu.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Saroberriko bidea

Alkateak, Irigaray jk., hitza hartu du eta esan du zundaketak egiten dituen Mendizar enpresak Saroberriko oinezkoentzako bidea egin duela suhiltzaileen parkeraino eta ondoko pentzeetara sartzeko aukera bermatua dagoela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Leader Proiektua

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du udan proiektuan aurreikusitako bisita gidatuak eta jarduera hezigarriak egiten ari direla eta bideak berreskuratzeko lanak hasi direla.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Eskulangintza Azoka eta Iraileko Feria

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du joan den abuztuaren 15ean Eskulangintza Azoka egin zela arrakasta handiz eta laguntzaileei zein Garaitzko Asi eta La Cadena Elkarteei eta Ana Isabel Erneta Errori eskerrak eman nahi dizkiela. Gaineratu du Iraileko ferian arrakasta handia izan zuela “La Voz Auritzarra”ren aleak eta baita uren ekarreraren mendeurrena ospatzeko ekitaldiak ere.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Gertakari bandalikoa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du abuztuaren 23ko goizaldean ezezagun batzuk Plazako banku bat jarri zutela karrikaren erdian eta Paula Etchepare Larraldek istripua izan zuela bere kotxearekin, berak ez zuen kalterik izan zorionez, baina kotxeak bai. Gertakaria zorigaitzezkoa izan zitekeela, 2010ean Argedasen gertatu zen bezala, pertsona bat hil baizen, eta bere ustez errefusatu beharreko gertakaria izan da eta espero duela ez gertatzea berriro horrelakorik.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udal Baskularako koadroa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Irkus Roblesek Feriaren gaia lantzen duten koadroak margotu dituela eta Gabino Urtasun Recak markoa jarri dizkiela eta horietako bat Baskulan jarriko dela eta bestea udaletxean, eta biei eskertu nahi diela emandako laguntza.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Fernando Maura Barandiaran Europako legebiltzarkidearekin izandako bilera

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du UpyDko Fernando Maura Europako legebiltzarkidearekin bilera egin zuela eta herriari zuzenean eragiten dioten programei buruz aritu zirela, adibidez Poctefa (Interreg) programaren hurrengo deialdia edo Mendiaundiko silize ustia. Bilera aprobetxatuz herriko harresi zaharrak berreskuratzeko proiektuaren kopia eman zion.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Udaletxeko obrak

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Nasuvinsari udaletxeko bi etxebizitza, algoazila eta medikuarena, zaharberritzeko memoria baloratua eskatu diola, bat behatzaleentzako egoitza bihurtzeko eta bestea bi etxebizitza egiteko, heldu den urtean aterako den Interregeko deialdian aurkezteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Hilerrien lehiaketa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du atzo estatu mailako hilerrien lehiaketaren emaitzak ezagutzera eman zirela eta gure herriko lehenengo postuan gelditu dela. Jasotako saria hilerrian hobekuntzak egiteko erabiliko dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Frontoiako tabernako isurbideak

Alkateak, irigaray jk., jakinarazi du tabernako txorrotan arazo bat zegoela eta bazirudiela obra gaizki egina egon zitekeela baina ez zela horrela izan, ontzi-garbigailuaren konponketa baten ondoren izandako arazoa baizik, eta hori konpondu ondoren isurbideen instalazioa ongi dagoela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Nafarroako Larrialdien Agentziarekin izandako bilera

Alkateak, irigaray jk., jakinarazi du irailaren 22an bilera egin zutela Eradio Ezpeleta eta Alberto Otamendirekin eta bilera horretara Felix Jamar (Aezkoako Batzarre Nagusiko burua), Miriam Almirantearena (Aurizko osasun eskualdeko zuzendaria) eta Inmaculada Capilla (Osasun Kontseiluko burua) joan zirela; bileran Aurizberrin dagoen anbulantzia Iruñerrira mugitzeko gaiaz aritu ziren eta Agentzian konpromezua hartu zutela hori egingo dela eskualdean anbulantzien zerbitzua estalita dagoen kasuetan, ez dutela eskualdeko anbulantzia kendu nahi eta laster Legebiltzarrean urgentziazko osasun garraioaren gaia eztabaidatuko dutela eta erne egon beharko dugula gure eskualdekoa nola gelditzen den jakiteko.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Mendi salmenta

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du laster aterako dela Antsobiko zur eta egur lote bat enkantera.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

Iturissako landa ikerketa

Alkateak, Irigaray jk., jakinarazi du Aranzadi Zientzia Elkarteak Iturissako aztarnategiaren kokapena zehazteko behar diren lanak egiten ari dela.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

13.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez dago.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da 21,20ean, eta nik neuk akta idatzi eta fede eman dut.